

Goseteek eta izurriek bultzatu zuten laktosarekiko tolerantzia Europan



Ikerketan 527 aztarnategitako arrastoak erabili dituzte; tartean, El Portalón de Cueva Mayorrekoak (Atapuercako mendilerroa). ARG.: Eneko Iriarte Avilés.

Pertsona heldu askok ez dute galdu laktosa digestitzeko ahalmena; bereziki, Europan. Ahalmen hori ematen duten aldaketa genetikoak azkar hedatu dira azken 10.000 urteetan, eta zientzialariek uste izan dute esne eta esneki gehiago kontsumitzeko aukera izatearekin erlazionatuta dagoela hedapena. Alabaina, [Nature aldizkarian argitaratu duten ikerketa batek](#) erakutsi du bestelako arrazoiek bultzatuta gertatu zela.

[Neomilk proiektuaren](#) baitan, azken 9.000 urteetako Europako esne-kontsumoaren mapa ebolutiboa egin dute ikertzaileek. Horretarako, zeramikazko ontzi arkeologikoen poroetan geratu diren esnegantzen analisia egin dute lehenik.

Horrez gain, aintzinako gizakien DNA-datuak, datazioak eta datu arkeologikoak konbinatu dituzte; besteak beste, laktosarekiko tolerantzak diren populazioak detektatu eta esnekien kontsumoaren bilakaerarekin alderatzeko. Horrela ikusi dute kontsumoan gertatzen ziren aldaketek ez zutela erlazorik esnea digestitzeko ahalmenarekin.

Azkenik, Erresuma Batuko Biobanku Genetikoa aztertu dute, gaur egungo populazioan tolerantzek

eta intoleranteek izan ditzaketen abantaila eta desabantaila ebolutiboak ikertzeko; adibidez, osasunean edo ugalkortasunean izan ditzaketenak. Eta hor frogatu dute esnearekiko intolerantzia duten pertsonei esnea kontsumitzeak ez diela ondorio larririk ekartzen epe luzera.

Hori, ordea, pertsona osasuntsuetan baino ez da gertatzen: ahuldutakoetan edo gaixoetan, laktosarekiko intolerantzia oso kaltegarria izan daiteke. Antzina ere hala zen. Eneko Iriarte Avilés Burgosko Unibertsitateko ikertzaileak azaldu duenez, Historiaurre Berantiarrean, osasunari gero eta kalte handiagoa egin zieten goseteek eta gaixotasun infekziosoek; bereziki, zoonotikoek. Halako osasun-egoeretan, esnea askorentzat elikagai aberatsa bazen ere, hilgarria izan zitekeen laktosarekiko intolerantzia zutenentzat.

Horrenbestez, "aztertutako faktoreen artean, goseteek eta patogeno zoonotikoen eraginpean egoteak azaltzen dute ondoen laktosarekiko tolerantzia ekarri zuten aldaketa genetikoaren bilakaera", baieztatu du Iriartek. ●